Lagun Artean

# 42 urte aterpea ematen etxea eraikitzen




# Memoria 2025

**Lagun Artean** irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, onura publikokoa eta interes sozialekoa, eta etxerik gabeko pertsonei harrera eta laguntza emateko lanean dihardu 1983az geroztik.

Gure jarduerak pertsona kokatzen du erdigunean, eta topaketa, harremanak sortzea eta **gizarte-partaidetza** ahalbidetzen du. Bizkaiko elizbarrutiari eta Caritasi lotuta dago.

Gure lana aurrera eramateko **lantalde zoragarri** bat dugu:




## HELBURUAK

- ☞ Pertsona guztiek **etxebizitza duina** eskura dezaten lortzea.
- ☞ **Gizarte-bazterkeria** eragiten duten egiturazko arrazoiak **deuseztatzea**.
- ☞ Pertsona guztientzako **berdintasunezko gune** bat izatea.
- ☞ Egoera zaurgarrian daudenen aldeko lanaren **erreferentzia** izatea Bizkaian.

**Lagun Artean** elkartean, uste dugu gizaki orok duela etxea izateko eskubidea eta **gizarte justu bat** eraikitzearen alde lan egiten dugu.

- ☞ Etxerik gabeko pertsonei **harrera egin eta laguntza ematen diegu**, bizi-kalitatea, autonomia eta gizarteratzea hobetzeko beharrezko laguntzak emanez.
- ☞ **Herritarrak sentsibilizatzen ditugu** zaurgarritasunari eta gizartebazterkeriari buruz, eta partaidetza eta boluntariotza-prozesuak errazten ditugu.
- ☞ **Bidegabekeriak salatzen ditugu**, eta konponbideak bilatu eta aukera kolektiboak proposatzen ditugu.




**21** egoitza-baliabideak





**127** Ohe erabilgarri

**250** (63 ♀, 187 ♂) ostatatutako pertsonak

**192** (30 ♀, 162 ♂) ostatatu gabe artatutako pertsonak





**75** Intzidentzia-ekintzak

**19** Sari eta aintzatespen



## GJHei EGITEN DIEGUN EKARPENA - EUSKADI 2030

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

1 POBREZIA DESAGERTZEA · 3 OSASUNA ETA ONGIZATEA · 4 KALITATE ONEKO HEZKUNTZA · 5 GENERO-BERDINTASUNA · 10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA · 16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK · 17 ITUNAK, HELBURUAK LORTZEKO

## EGITASMOAK

Gizarte-bazterkeriako arriskuan eta egoeran dauden pertsonei laguntzen ditugu, eta autonomia eta gizarteratze maila ahalik eta altuena lortzeko prozesuak errazten ditugu.




**GAUEKO ZENTROA.** Gaueko harrera: 365 egun urtean, 32 plazarekin. Oinarrizko premiak asetzea eta informazioa, orientazioa eta laguntza ematea. Egonaldiaren iraupena aldatu egiten da egoeraren arabera. *Bilboko Udalarekin eta Tapia, Antonio Menchaca eta La Caixa fundazioekin hitzartua.*

**IREKIA.** Egunean zehar babesteko eta kaleko bizimoduaren inpaktua apaltzeko gune epela. Gizarteratzeko prozesuetan laguntzea eta oinarrizko premiak asetzea. *Bilboko Udalarekin eta Tapia eta La Caixa fundazioekin hitzartua.*

**AUKERAZ.** Gizon migratzaileentzako laguntza eta ostatua, 23 plazarekin, horietako 11 **Aize Onak** baserrian. *Bilboko Udalak, Eusko Jaurlaritzak (**Trapezistak** programa) eta Tapia, Susana Monsma eta Gondra Barandiarán fundazioek finantzatuta.*

**KIMA.** Bakarrik dauden edo adingabeak ardurapean dituzten emakumeentzako ostatua eta laguntza. 56 egoitza-plaza, eguneko zentroa eta arreta psikologikorako. *Bilboko Udalak (**Kanala**), Eusko Jaurlaritzak (**Trapezistak** programa), Carmelitas Vedruna Europa-Bilbao kongregazioak eta Tapia, Carmen Gandarias, Susana Monsma, Gondra Barandiarán, La Caixa eta Betiko fundazioek finantzatuta.*

**KIDE.** Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egonaldi luzeko zerbitzu integrala. Eguneko zerbitzua: 36 plaza laguntzarako, arreta psikologikorako, jardueretarako eta abarrerako, eta 10 egoitza-plaza 24 orduko arretarekin eta urteko 365 egunetan. *Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzartuta.*

**LAGUN LAGUNAK.** Programa honen bidez, familia batek aldi baterako kalteberatasun-egoeran dagoen pertsona bat edo batzuk hartzen ditu etxean. Familiak zehazten ditu ostatatzearen baldintzak, eta Lagun Arteanek egiten du laguntza.



## EGOITZA-BALIABIDEetan akonpainatutako pertsonak

| | Bestelakoa | Emakumea | Gizona | Zenbat | Plazak | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Bigarren mailako arreta Kide** | **0** | **3** | **8** | **11** | **10** | **3** |
| Gaueko Zentroa | 0 | 2 | 112 | 114 | 32 | 1 |
| Aukeraz | 0 | 0 | 37 | 37 | 23 | 4 |
| **Lehen mailako arreta** | **0** | **2** | **149** | **151** | **55** | **5** |
| Kanala | 0 | 27 | 13 | 40 | 26 | 4 |
| Guk geuk kudeatuta | 0 | 30 | 10 | 40 | 30 | 7 |
| **Kima Programa** | **0** | **57** | **23** | **80** | **56** | **11** |
| **Etxebizitzak euskarriekin** | **0** | **0** | **6** | **6** | **6** | **2** |
| **Lagun Lagunak** | **0** | **1** | **1** | **2** | **-** | **-** |
| **Etxebizitzak guztira** | **0** | **61** | **75** | **136** | **95** | **20** |
| **Baliabideak guztira** | **0** | **63** | **187** | **250** | **127** | **21** |

## EGOITZAZ BESTELAKO BALIABIDEetan akonpainatutako pertsonak

| | Bestelakoa | Emakumea | Gizona | Zenbat | Plazak | Baliabideak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Kide eguneko zerbitzua | 0 | 12 | 31 | 43 | 36 | 1 |
| Irekia | 0 | 1 | 126 | 127 | ∞ | 1 |
| Kima | 0 | 17 | 5 | 22 | ∞ | 1 |
| **TOTAL** | **0** | **30** | **162** | **192** | **∞** | **3** |

## AKONPAINATUTAKO PERTSONA GUZTIAK

| | Bestelakoa | Emakumea | Gizona | Zenbat |
|---|---|---|---|---|
| **Lagun Artean** | **0** | **93** | **349** | **442** |








## PLATAFORMETAN PARTE-HARTZEA

BAI SAREA – Berdintasunean Aukerak Indartzen
beste Bi – Danok bizilekua izatearen eta aterpe bakoen aldeko plataforma / Plataforma por la inclusión residencial y a favor de las personas sin hogar
BizkaiaGara
EAPN euskadi – Pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin / Red europea de lucha contra la pobreza y la exclusión social en Euskadi / European anti poverty network in the Basque Country
ecosistema
ekaIN – Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak / Redes para la Inclusión Social en Euskadi
fiare bancaetica
#GIZARDATZ – Asociación de Entidades de Iniciativa e Intervención Social de Bizkaia
HARRESIAK APURTUZ – Euskadiko etorkinei laguntza emateko GKE-en koordinakundea / Coordinadora de ONG de Euskadi de Apoyo a Inmigrantes
PLATAFORMA NORTE
REAS EUSKADI

## INFORMAZIO EKONOMIKOA

2025eko ekitaldiko bolumen ekonomikoa: **2.194.251,54 €**

### DIRU SARRERAK




### GASTUAK




Kontuen ikuskaritza:
**Auren Auditores**



## FINANTZA-ENTITATEAK

acompartir
Banco de Alimentos de Bizkaia – Bizkaiko Elikagaien Bankua
betiko
Bilbao Udala Ayuntamiento
Bilboko Elizbarrutia – Diócesis de Bilbao
Bizkaia foru aldundia diputación foral
BUSF Bomberos Unidos Sin Fronteras
Cáritas Diocesana de Bilbao – Bilboko Elizbarrutikoa
elkarrekin bila – Bide berean lagun - Proyecto social de Arantzazu
Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea – Instituto Vasco de la Mujer
Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco – Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila – Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico
Fe y Justicia – Fede eta Justizia
Fundación Antonio Menchaca Fundazioa
fundación carmen gandarias
Fundación Gondra Barandiarán
Fundación Susana Monsma
Fundación Víctor Tapia - Dolores Sainz
koopera – innovación social y ambiental
LALIGA
Leioako Ostalaritza Eskola – Escuela de Hostelería de Leioa
MMB Mercedarias Misioneras de Berriz
Fundación "la Caixa"
Vedruna Europa

# Solidarizatu!!

**BOLUNTARIOAK**

Zure denbora, ahalegina, elkartasuna eta maitasuna eskain ditzakezu gure edozein proiektutan.



**BAZKIDEA**

Aldizkako ekarpen ekonomikoaren bitartez, solidaritatearen aldeko gure lanean parte hartu eta hura babesten duzu.

**DOHAINTZA**

- ☞ **BIZUM 03536** (Bizum → kausa solidario baterako dohaintza → 03536 kodea)
- ☞ Fiare ES34 1550 0001 2100 1007 1322
- ☞ CaixaBank ES58 2100 42 84792200019367
- ☞ Nafarroako Rural Kutxakoa ES75 3008 0266 5652 3542 3026
- ☞ Laboral Kutxa ES87 3035 0057 90 0570043812
- ☞ Kutxabank ES07 2095 0010 40 3830607841

Edozein ekarpen errenta-aitorpenean % 45 deskontatzen da

**LEGATU SOLIDARIOA**

Sartu Lagun Artean onuradun gisa zure testamentuan.

**BIHOTZA DUTEN ENPRESAK**

Zure enpresak gure ekintza sozialean lagundu edo parte har dezake hainbat modutara. Parte hartzaileak:

artek estudioarquitectura, slp. · Begira · circet España · GO4IT SOLUTIONS · Live Le Basque · BISUBI fundazioa · Marolaguista · KOBLEDDO · salesianos DEUSTO · TALLERES JAVIER ANTON S.L. ZURBARANBARRI Nº 24 944458817

## Kontaktua

☎ 944 47 24 87
688 867 000
lagun-artean@lagun-artean.org
Julio Urquijo kalea, 5
48014-Bilbo
**www.lagun-artean.org**





**Eusko Jaurlaritzak GIZARTE INTERESEKOA eta ONURA PUBLIKOKOA deklaratua**

2021 KUDEAKETA AURRERATUARI BRONTZEZKO AINTZATESPENA · 2025 G48168868 auditoria soziala REAS EUSKADI

# 2025EKO GIZARTE-ERAGINAREN NEURKETA

**HELBURUA:**
Bidezko gizarte bat eraikitzea **etxerik gabeko pertsonei harrera eginez,** gizartea sentsibilizatuz eta salatuz.

## INPUTS·BALIABIDEAK

Plataformak
13

HARREMAN-KAPITALA

BIDERATUTAKO FUNTSAK




Guztira
2.109.738,99
Egoitza-plazak
127

TALDEA




## JARDUERAK·ESTRATEGIA

ETXERIK GABEKO PERTSONEI HARRERA EGITEA ETA LAGUNTZA EMATEA




GIZARTE-BAZTERKERIAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIOA ETA SALAKETA

Intzidentzia-ekintzak
75
Agerpenak hainbat hedabidetan
35

PRESTAKUNTZA, ZAINTZA ETA AINTZATESPENA

## OUTPUTS·EPE LABURREKO EMAITZAK

LAGUN ARTEAN-EN AITORTZA

Intzidentzia-ekintzak 75
Web irismena 50.700

LAGUNDUTAKO PERTSONAK

Erroldak
136
♀ 61
Inklusio-prozesuetan aurrerapenak
301
♀ 68

GOGOBETETZEA ETA MOTIBAZIOA

8,18 / 10
Profesionalen gogobetetzea

8,78 / 10
Boluntarioen gogobetetzea

## OUTCOMES·EPE ERTAINEKO EFEKTUAK

KONTZIENTZIA SOZIAL ETA POLITIKOA AREAGOTZEN DU

BIZI-KALITATEA HOBETZEA: AUTONOMIA ETA GIZARTERATZEA

Aldaketak, laguntza jaso duten pertsonen, bizitzan*
*(Iturri Profesionalak)*
Iritsitakoan / 2025

Lagundutako pertsonen aldaketen autopertzepzioa*
*(Iturri Inkesta)*

| | Aldaketa | Iritsitakoan | 2025 | Autopertzepzioa |
|---|---|---|---|---|
| **BABESA** | | | | |
| Diru-sarrerak | 3,02 ↗ | 3,16 | 6,16 | 8,24 |
| Etxebizitza | 3 ↗ | 3,08 | 6,06 | 8,78 |
| Administrazio-egoera | 2,12 ↗ | 5,46 | 7,56 | 8,57 |
| **SUSTAPENA** | | | | |
| Enplegua | 0,88 ↗ | 2,74 | 3,6 | 5,99 |
| Formakuntza | 1,20 ↗ | 4,82 | 6,04 | 8,32 |
| Aisia | 2,34 ↗ | 4,44 | 6,78 | 8,69 |
| **HARREMANAK** | | | | |
| Familia | 1,30 ↗ | 4,92 | 6,20 | 8,50 |
| Gizarte-harremanak | 1,46 ↗ | 4,36 | 5,82 | 7,80 |
| **ONGIZATEA** | | | | |
| Osasuna | 1,84 ↗ | 5,90 | 7,74 | 8,52 |
| BUko ardurapeko adingabeak | 2,26 ↗ | 5,40 | 7,66 | 8,63 |
| **ITXAROPENA** | | | | |
| Garapen pertsonala | 0,56 ↗ | 1,18 | 1,74 | 8,51 |

Inklusio bidez irteten diren lagundutako pertsonak




Pertsonen bizitzako aurrerapenak/aldaketak, zerbitzuen arabera*
*(Iturri Profesionalak)*
Iritsitakoan / 2025

| Zerbitzua | Aldaketa | Iritsitakoan | 2025 |
|---|---|---|---|
| KIMA Orokorra | 3,00 | 4,98 | 7,96 |
| KIMA Plaza propioak | 3,16 | 4,82 | 7,98 |
| KIMA Kanala | 2,76 | 5,20 | 7,94 |
| KIDE Eguneko zerbitzua | 2,60 | 4,20 | 6,80 |
| KIDE Egoitza-zerbitzua | 2,20 | 5,00 | 7,20 |
| IREKIA | 2,06 | 4,28 | 6,34 |
| AUKERAZ Aize-onak | 3,20 | 3,76 | 6,96 |
| AUKERAZ Pisuak | 3,80 | 3,94 | 7,74 |
| GAUEKO ZENTROA | 1,76 | 4,30 | 6,06 |

ITZULERA

3 Publikoak
8 Pribatuak
5 Hitzarmen aktiboak

**Finantzatzaileen % 100ek berritu dute**

## GIZARTE ERAGINA

Gizarte eraldaketa: bidezko gizartea, solidarioa, berdintasunezkoa eta inklusiboa.

Lagundutako pertsonen gizarteratze osoa eta bizitza duina.

Lagun Artean

*0tik 10erako eskalan kalkulatutako balorazioak.